



INGURUMENEO JARDUNARI BURUZKO JAKINARAZPENA

Gastronomía Baskak, ingurumenaren babesaren eta ingurumenaren jasangarritasunaren alde egiten duen apustuan, prozesuak nahiz baliabideak zaintzen ditu, maila globalean arduratsua den giza garapena sustatzeko, ingurumena bera babesteko eta, ISO 14001:2015 arauan zehaztutako irizpideen arabera, etorkizuneko belaunaldiek bizi-kalitate hobeko duten eskubidea errespetatzea helburu duen ekonomia bultzatzeko.

2022an, azken belaunaldiko 980 modulu fotovoltaiko jarri dira Gastronomía Baskak Mungian dauzkan instalazio nagusietako teilatuetan, eta haien azalera 1.810 m²-koa da, zazpi tenis-pista ingurukoa, alegia. Instalazioaren eremu fotovoltaikoaren potentzia 328 kwp-koa da; eta, potentzia instalatua, 300 kwn-koa. Hori dela eta, urtean 358.184 kwh-raino sortzeko gai da, hau da, 50 etxebizitzaren urteko kontsumoaren baliokidea. Horrela, CO₂ren isuria urteko 103 Tm murriztea lortzen da, 282 kg eguneko, 8 etxebizitza ertainen urtebeteko jardunbideak isuritako gas guztia halakoa, alegia.

Instalazio fotovoltaiko horretaz gain, enpresako ibilgailuak eta logistikako furgonetak instalazioetan eskuragarri dauden karga-guneetan entxufatzen dira gaur egun, eta, hemendik aurrera, eremu fotovoltaikoak sortutako energia bera izango dute hornigai.

Aurrerapauso handia da berotegi-efektuko gasen isuria murrizteko asmoz Gastronomía Baskak ezarritako estrategian. Garapen Jasangarrirako Helburuak (GJH) betetzea da xedea, zazpigarrena (kutsagarria ez den energia merkea), hain zuzen ere, eta bat dator GB Korporazioak GJHetan zehatz-mehatz oinarrituta abian jarri duen 2030erako Begirada hezkuntza-proiektuarekin.

Gastronomía Baska aukera berriak aztertzen ari da, ingurumenaren zainketaekin duen benetako konpromisoan sakontzeko. Ikuspegi hori, hain zuzen ere, zabal-zabal partekatzen dute bere bezeroek, eta erabat bereganatuta dute konpainian lan egiten duten guztiek.

Fernando Gazpio

Zuzendari gerentea